



haurtzaro bakoitzarentzat



HAURREN BABESA ESKOLA-INGURUNETIK

ONGIZATEAREN ETA BABESAREN ARLOKO KOORDINATZAILEA

Gomendioak LOPIVI ikastetxeetan aplikatzeko

HAURREN BABESA ESKOLA-INGURUNETIK

ONGIZATEAREN ETA BABESAREN ARLOKO KOORDINATZAILEA

Gomendioak LOPIVI ikastetxeetan aplikatzeko

Koordinazioa:

Óscar Belmonte Castell
Almudena Olaguibel Echeverría -Torres
Haurren aldeko Politika eta Sentsibilizaziorako Zuzendaritza. UNICEF Espainia
www.unicef.es/educa



Sonja Uhlmann
British Council
www.britishcouncil.es

**Comillaseko Unibertsitate Pontifikaleko
Haurren Eskubideen Santander Katedrarekin lankidetzan**

Parte-hartzeak:

Nacho Guadix García
Aridane Hernández Hernández
Patricia Landínez González

Edizioa

UNICEF Espainia.
Mauricio Legendre kalea, 36. 28046 Madril

Diseinu grafikoa

Rex Media SL

Azaleko argazkia: ©UNICEF/UN0362383/Nemanja Pancic

Madril, 2021eko urria

UNICEFek haur guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu egiten dugun guztian. Gure aliatuekin batera, 190 herrialdetan eta lurraldetan egiten dugu lan, konpromiso hori ekintza praktikoko bihurtzeko. Gure ahaleginaren helburua da, batez ere, haur kalteberengana eta baztertuengana iristea, leku guztietako haur guztiei on eginez.



haurtzaro bakoitzarentzat

“Haurrenganako indarkeriaren aurkako borroka Giza Eskubideen agindu bat da. Haurren eta nerabeen eskubideak sustatzeko — Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean ezarritakoak— funtsezkoa da ziurtatzea eta bultzatzea haien giza duintasunaren eta osotasun fisiko eta psikologikoaren errespetua, indarkeria-mota oro prebenituta”.

Haurrak eta Nerabeak Osorik Babesteari buruzko Lege Organikoaren hitzaurrea



HEZKUNTZA BERRIMAJINATZEA HAURREN BABESA HOBETUTA	4
1. BABES OSOAREN IKUSPEGIA INDARKERIAREN AURREAN	8
1.1. Oinarrizko printzipioak	9
1.2. Jardute-ardatzak	10
2. ONGIZATEAREN ETA BABESAREN KOORDINATZAILEAREN (OBK) EGINKIZUNAK	11
2.1. Estatuko legerian aurreikusitako eginkizunak	11
2.2. Eginkizunak antolatzeke proposamena	13
2.3. Jardute-eremua	14
2.4. Erlazioa beste profil profesional batzuekin	15
2.5. Barne-sarea eta kanpo-sarea	16
2.6. Informazio sentikorraren trukea	17
3. INTERBENTZIO-MAILAK	18
3.1. Kasu tipoak	20
3.2. Bizikidetzatza-planaren mugak zabaltzen	23
4. FUNTSEZKO FAKTOREAK IZENDAPENERAKO: ARRISKU-MAILAK	24
5. PRESTAKUNTZA OINARRIZKOA, GAITZEKOA ETA ESPEZIALIZATUA	26
6. HAURRAK BABESTEKO IRAKASLEEN GAITASUNEN EBALUAZIOA	27
ONGIZATEAREN ETA BABESAREN KOORDINATZAILE (OBK) FIGURA EZARTZEKO GOMENDIOAK	28
Erreferentzia bibliografikoak	30

HEZKUNTZA BERRIMAJINATZEA HAURREN BABESA HOBETUTA

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osorik Babesteari buruzko Lege Organikoa (8/2021, ekainaren 4koa, **LOPIVI**) adostasun handiz onetsi izana aukera bat da **ikastetxeetara joaten diren haurrek eta nerabeek** ahalik eta **babes handiena** izateko **indarkeria-mota ororen aurrean, beren bizitzaren eremu guztietan**.

Lege berriaren ikuspegi integralak hainbat administrazioari dei egiten die parte hartzera, legearen helburua lortzeko ezinbestekoa baita haien esku-hartzea. Askotariko eremuetako profesionalei egiten zaie deia, besteak beste, eremu hauetan dihardutenei: osasuna, hezkuntza, polizia, zuzenbidea, gizarte-zerbitzuak eta kirola.

Ikastetxeetan, ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen figura profesional berria gaitasunak eta baliabideak elkartzeaz arduratuko da, haurrek babes osoa jasotzeko duten eskubidea zaintzearen. Eginkizun horrek, Justizia Ministerioak eskatuta lege-aurreproiektuan 2018an sartuak, babes handia du eta ziurtatua dago bere eraginkortasuna hainbat hezkuntza-sistema internazionaletan; izan ere, **handitu egin du haurren ongizatea** eta, era berean, legegintzako neurrien betearazpena zaindu, intzidentek prebenitu eta **babestu egin ditu horrela ikastetxeetako arduradunak intzidente horietatik erator daitezkeen ondorio zibil eta penaletatik**.



©UNICEF/UN0362324/Nemanja Panic



Espainiako hezkuntza-arloko legeriak dagoeneko erregulatu du ongizatearen eta babesaren koordinatzaile bat ikastetxe guztietan izendatzeko betebeharra, eta arau-esparru bat eratu du, orain sektore honetako administrazioek garatu beharrekoa. LOEa aldatzen duen Lege Organikoa (LOMLOE) bere 66. artikulua bakarrean, 5. apartatua gehitu du LOEren 124. artikuluan, ondokoa ezartzeko:

"Hezkuntza-arloko administrazioek jarduteko protokoloak erregulatuko dituzte egoera hauek antzematen badira: eskola-jazarpena, zibererasoa, sexu-jazarpena, genero-indarkeria eta indarkeriaren beste edozein ageraldi, baita ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak bete behar dituen baldintzak eta eginkizunak ere, zeina ikastetxe guztietan izendatu behar baiten, haien titulartasuna alde batera". 124. artikulua, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa.

Haren apustua, praktikan, erronka saihestezin bat da haurren aurkako indarkeria izaten ari den goraldi nabarmenaren mehatxuaren aurrean.

Barne Ministerioaren datuen arabera, 2019an, haur eta nerabeenganako tratu txarren 5.408 delitu zenbatu ziren familia-eremuan, 2018an izandako 5.097 kasuen eta 2017ko 4.240 kasuen aldean. Goranzko joera bera ikusten da sexu-askatasunaren aurkako delituetan, eta halakoetan biktimia guztien ia erdia adingabeak dira. 2019an 5.890 denuntzia aurkeztu ziren haurrenganako delitu horiengatik; 2018an 5.376 izan ziren eta 2017an, berriz, 4.542.

Indarkeriaren eraginpean egoteak, bere edozein modutan —eskola-jazarpena, zibererasoa, abusua, groominga, tratu txarra edo tratu zabarra, besteak beste— ondorio larriak ditu haurren eta nerabeen garapen pertsonalean, sozializazioan eta hezkuntza-prozesuan. COVID-19aren krisia agerian ari da uzten areagotzen doazela halako egoerak, bai iraupenean bai maiztasunean, larritasunean eta konplexutasunean. Hobekuntza sanitarioaren seinaleak egon arren, aurrez ikus daiteke inpaktu hori handitu egingo dela ondorio sozioekonomikoak larriagotu ahala. Testuinguru honetan, **hezkuntzak protagonismo berezia izango du indarkeriaren prebentzioan, detekzio goiztiarrean, ikaskuntza fisikoen zein birtualen testuinguruetan, eta**

Haurren ongizatean eta babesean inbertitzea funtsezkoa da haur eta nerabe bakoitzak ahalik eta garapen handiena lor dezan.

eskola-eremuan babes-inguruneak sortzean.

Aukera bakana da hau hezkuntza berrimajinatzeko, pandemiaren aurreko gure abiapuntua hobetuta, kasu honetan haurren babesetik hasita. Beharrezkoa da ikuskera-aldaketa hori bultzatzea; kontua ez da nire ikastetxean gertatzen dena, nire ikastetxeko haurrei gertatzen zaiena baizik.

Haurren babesean inbertitzea garapenaren baldintza saihestezin bat da.

Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) 16.2. xedeak eskatu egiten du haurren aurkako indarkeria-mota orori azkena emateko, eta 5.1. xedeak, espezifikoki, haurren aurkako indarkeria-mota oro errotik ezabatzeke.

Administrazioen eta ikastetxeen eginkizuna erabakigarria da eszenario berri honetan. Hala, bermatu egin behar dute beharrezko mekanismoak

eta prozedurak daudela prebentziorako eta erronka honen aurrean egokiro erantzuteko.

Gure inguruneko herrialdeek haurrak babesteko sistemak dituzte, eta horietan **haurren babesaz** (safeguarding) arduratzen den profesional baten figura oso sendotua dago hezkuntza-eremuan. Horren adibide dugu **British Council**. Erakunde horrek tradizio zabala du Safeguarding Lead figura baliabidetzat erabiltzen, eta aholkularitza eskaintzen du figura hori ezartzeko moduari buruz, bertako profesionalek beren ikasle guztien babesa bermatzearren egiten duten lanaren eguneroko esperientzian oinarrituta.

Bai UNICEF Espainiak bai British Council-ek ibilbide luzea eta aitortua dute indarkeriaren aurrean haurrak babesteko sistemen diseinuan, garapenean eta abiarazpenean. UNICEF Espainiak hasieratik lagundu du LOPIVI legearen garapenean, eta



©UNICEF/UN0362326/Nemanja Panic



jarraitu egingo du laguntza teknikoarekin Espainiako haur guztien babes-eskubidea berma dadin defendatzen eta laguntzen. Gainera, txosten hau lantzeko, **Comillaseko Unibertsitate Pontifikaleko Haurren Eskubideen Santander Katedraren** aholkularitza jaso da, zeinak, UNICEFen eskariz, bere irizpen juridikoa eman duen.

Dokumentu honen asmoa da figura profesional berri hori praktikan jartzeko behar diren neurriak garatzen laguntzea, kontuan hartuta aukera ematen duela benetako aurrerapausoak

ematea hezkuntzan eta hezkuntzatik haurren babes-eskubidea bermatzeko bidean. **Figura horren eginkizunei, prestakuntza-betebeharrei eta izendapen-mekanismoei buruzko gomendioen helburua adituen arteko debate bati hasiera ematea da, arauen garapenean eta baliabideen mobilizazioan lagunduko duen bati** alegia, baliabide horiek beharrezkoak baitira LOPIVIn adierazitako helburuak lortzeko, zeinak zehaztuko diren bere artikulatuan jasotzen den *Haur eta Nerabeenganako Indarkeria Errotik Erauzteko Estrategiaren* bidez.

Ikastetxean babes-ingurune bat eraikitzea hezkuntzaren eginkizunetik bereizi ezin den erantzukizun bat da.



1.1. Oinarrizko printzipioak

Baterako ekintza hori lortzeko beharrezkoa da erreferentzia-esparru sendo eta partekatu bat eskueran izatea. Kasu honetan, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (1989) jasotakoak gidatuko du interbentzio oro, kontuan hartuta historian berronespen handiena izan duen giza eskubideen ituna dela eta gure ordenamendu juridikoan sartuta dagoela. Hortik aurrera printzipio hauek begietsiko ditugu:

1. Ekintza guztietan zainduko dugu haurren interes gorena, kontsiderazio nagusia eta gida izan behar duena erabakiak hartzeko garaian.
2. Pertsona guztiek dute haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean aktiboki babesteko erantzukizuna. Funtsezkoa da agintariekin eta gizarte-eragileekin sarean lan egitea. Batera lan eginda bakarrik eskaini ahal izango dugu babes-ingurune bat.
3. Haurrak babestu egin behar ditugu haiek dauden ingurune guztietan, fisikoetan zein birtualetan.
4. Haur eta nerabe guztiek dituzte babes-eskubide berak indarkeriaren aurrean. Prebenitu egin behar dugu diskriminazioa, eta estigmatizazioa saihestu.

5. Martxan jarri behar ditugu behar diren jarduerak guztiak haurren aurkako indarkeria prebenitzeko edo bere aurrean ekiteko.
6. Erabakigarritasunez sustatu behar dugu haurren partaidetza prozesuetan eta erabakiak hartzeko garaian.
7. Sustatu egin behar dugu gurasotasun positiboa eta, ahal den guztietan, familiekin eta/edo legezko tutoreekin elkarlan estuan jardun.
8. Funtsezkoa da sentsibiltate kulturala eta tokiko testuinguruaren onarpena erakustea erabakiak hartzean eta gure prozedurei buruz informatzeko garaian.
9. Haurrak babesteko ditugun politikei buruz zintzo eta garden eta modu hurbil batean informatu behar diegu gurekin lan egiten duten pertsona guztiei, haurrak barne, eta nola lan egiten dugun eta garatzen ditugun jarduerak zeintzuk diren azaldu.
10. Profesionalen arteko informazio-trukean, haurren, nerabeen eta haien familien datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babesa bermatu behar ditugu.



1.2. Jardute-ardatzak

Oinarrizko printzipioak adostu ondoren jarduna diseinatu behar da babes-ingurune hori sortzen lagunduko duten ardatz batzuen inguruan. Neurri horiek zabaltasunez kontrastatutako jardunbide egokietan oinarrituta egon behar dute. Hortaz, interesgarria iruditzen zaigu 2020an argitaratutako *Keeping Children Safe* erakunde espezializatuaren estandarren azken berrikuspenetik abiatzea. Estandarrak lehenengo aldiz argitaratu zirenetik, mundu osoko hainbat eta hainbat erakundek eta profesionalek aplikatu dituzte. Estandarren etengabeko eguneratzeak aukera ematen du beren ezarpenetik eratorritako inpaktua neurtzeko eta burututako ekintzen kalitatea areagotzeko, harren babesaren arloan lortutako emaitzen arabera.

Bestetik, eta arauen garapenari begira, gure proposamena da **UNE 0070** espezifikazio teknikoak ere kontuan hartzea. UNE 0070 indarkeriarekiko babesa kudeatzeko sistema bat da, adingabeei eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako jarduerak garatzen dituzten erakundeetan erabilia, gizarte-ekintzaren, hezkuntzaren, kirolaren, aisiaren eta denbora librearen eremuetan.

Lau jardute-ardatzak —zeinen inguruan adostasun sendo bat dagoela esan daitekeen haurrak babesteko

erakundeetako estandarretan—, legeen garapena orientatu beharko luketenak, hauek dira:

1. ardatza. Politika

Ikastetxeak esplizitu egin beharko luke politika bat, hurrei eragindako indarkeria-egoera posibleak prebenitzeko eta haiei erantzuteko hartzen duen konpromisoa deskribatuko duena. Babes-politikak beti egon beharko du lerrotatuta administrazioen protokoloekin, Hezkuntza Proiektuan bildutako ikastetxearen balioekin eta, gainera:

- Berdinen arteko indarkeriaren prebentzioa jasoko du (jazarpena, zibererasoa eta genero-indarkeria).
- Familia barruko, gizarteko edo komunitateko indarkeriaren prebentzioan lagunduko du.
- Detekzio goiztiarraz arduratuko da eta ekintzara joko du egoeran hauen aurrean: tratatu txarra, zabartasuna, abusua, jazarpena, zibererasoa eta genero-indarkeria.

2. ardatza. Pertsonak

Ikastetxeak argi eta garbi ezarriko ditu bertako langileekiko erantzukizunak eta itxaropenak, baita ikastetxearekin elkarlanean ari diren hirugarrenekiko ere, eta haien gaitasunak indartuko ditu erantzukizun eta itxaropen horiek interpretatu eta egokiro jardun dezaten, berekin ekarrita ikastetxeko profesionalen arteko tratatu ona.

3. ardatza. Prozedurak

Ikastetxeak haurrak babesteko prozedura argiak eta sinpleak ezarriko ditu. Kontuan hartu beharra dago hezkuntza-komunitateak jarraibide ugari jasotzen dituela ikasturtean zehar; hortaz, garrantzi handikoa da haurren babesari lotutako ekintzak ulertzen eta jarraitzen errazak izatea.

Prozedura horiek ekintza hauek jasoko dituzte:

- Eskola-inguruneke barneko babes-sarearen koordinazioa: zuzendaritza, tutoreak, orientatzaileak, hezkuntza-ikuskaritza eta familia.
- Eskola-inguruneke kanpoko babes-sarearekin koordinazioa: gizarte-zerbitzuak, segurtasuna, justizia eta osasun-zerbitzuak.

4. ardatza. Kontu-ematea

Ikastetxeak, erakunde bat den aldetik, erregularitasunez ebaluatu eta berrikusiko ditu bere babes-neurriak haien eraginkortasuna hobetzeraren, eta bai hezkuntza-komunitateari bai administrazio publikoari horren berri emango die komunikazio egoki eta garden baten bitartez.

Keeping Children Safe

Keeping Children Safe erakunde independente bat da, irabazi-asmorik gabea. Erresuma Batuan du egoitza eta nazioartean dago ziurtatua eta aitortua haurren babesaren arloan egiten duen lana. Bere estandarrak, lehenik kooperazio-erakundeen koalizio batek 2002an argitaratuak, ondoren Paulo Sérgio Pinheirok ziurtatu zituen, aditu independenteak haurren aurkako indarkeriaren gaineko ONUren azterlanerako. Aditu horrek honela deskribatzen ditu *“aukera bikaina, haurrekin lan egiten duten pertsonen kalitatean eta profesionaltasunean hobetzeko ez ezik, garrantzi handiagoko zerbaiterako ere, lagundu egingo baitute inpaktu handiagoa izaten haurren babesaren arloan erakundeetan.”* Entitateak berak dioen bezala *“haurrekin eta haurrentzat lan egiten dutenen konpromisoa adierazten dute, beren erakundeek ‘kalterik egiten ez dutela’ eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean ezarritako erantzukizunak betetzen dituztela ziurtatzeko garaian, abusu, zabarkeria, esplotazio eta indarkeria-mota guztietatik babestuta egon daitezkeen haurrak.”* Informazio gehiago, hemen: www.keepingchildrensafe.global/es/

2. ONGIZATEAREN ETA BABESAREN KOORDINATZAILEAREN (OBK) EGINKIZUNAK

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak hezkuntza-erakundeetako langileengandik babesa jasotzeko bermea ezartzen du, kalte, abusu fisiko edo mental ororen aurka, eta berretsi egiten du haurrek eta nerabeek beren duintasuna eta beren osotasun fisikoa eta pertsonala errespetatuak izateko duten funtsezko eskubidea. **Hezkuntza-arloko profesionalak garrantzi handiko figura**

profesional bat dira haurren babesean.

Ikastetxean babes-ingurune bat eraikitzea, arriskuen eta autobabeserako tresna egokien berri ematea, pertsonen arteko harreman-eremu seguru bat sortzea, edo familian edo gizartean arrisku-egoerak identifikatzea **hezkuntzaren eginkizunetik bereizi ezin diren erantzukizunak dira.**

2.1. Estatuko legeetan aurreikusitako eginkizunak

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko Lege Organikoaren (LOPIVI) 35. artikulua xedatu egiten du, ikastetxeetan, ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen eginkizunek, gutxienez, hauek izan behar dutela:

- a. Prestakuntza-planak sustatzea prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta haurren eta nerabeen babesari buruz indarkeriaren aurrean, bai ikastetxeetan lan egiten duten langileei bai ikasleei zuzenduak. Tutore-lana egiten duten ikastetxeetako langileei zuzendutako prestakuntza-planari emango zaie lehentasuna, baita ikasleei zuzendutakoei ere, indarkeria-egoera detektatzeko eta horien aurrean erantzuteko trebetasunak eskura ditzaten. Gainera, Gurasoen Elkartekin koordinazioan, prestakuntza hori sustatu beharko da haien artean, baita tutore-, zaintzaile- edo hartzaile-eginkizunak betetzen dituzten horien artean ere.
- b. Hezkuntza-administrazioek onesten dituzten protokoloekin bat etorrira, gizarte-zerbitzu

- eskudunen interbentzioa eskatzen duten kasuak koordinatzea. Legez aurreikusitako kasuak direnean, dagokien agintariei jakinarazi beharko zaizkie, beharrezkotzat jotzen bada, eta komunikatzeko betebeharrari kalterik egin gabe.
- c. Erreferente gisa identifikatzea, ikasleen aurrean, ikastetxeko langileen aurrean eta, oro har, hezkuntza-komunitatearen aurrean, ikastetxeko edo ingurune indarkeria-kasu posibleei buruzko komunikazioetarako.
- d. Neurriak sustatzea, haur eta nerabeentzako ahalik eta ongizate handiena ziurtatuko dutenak, baita haienganako tratu onaren kultura ere.
- e. Ikastetxeko langileen eta ikasleen artean gatazkak modu baketsu batean ebazteko metodo alternatiboak erabil daitezen sustatzea.
- f. Ikastetxeko langileei informatzea edozein indarkeria-motaren aurrean prebenitzeko eta babesteko dauden protokoloei buruz dagokion herrian edo autonomia erkidegoan.
- g. Desgaitasuna duten edo beste edozein kalteberatasun- edo dibertsitate-zirkunstantzia

berezi bizi duten ikasleenganako errespetua sustatzea.

h. Ikastetxeko zuzendaritzarekin 31. artikuluan adierazitako bizikidetza-plana koordinatzea.

i. Adingabeen segurtasunarentzat arrisku bat diren egoeretan ikastetxeak Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei zuzendutako berehalako komunikazioa sustatzea.

j. Adingabeen datu pertsonalen legez kontrako tratamendu bat berekin ekar dezaketen egoeretan, ikastetxeek Datuak Babesteko Agentziei zuzendutako berehalako komunikazioa sustatzea.

k. Ikastetxean ematen den elikadura osasungarria eta elikagarria izan dadin sustatzea, haurrei eta nerabeei, bereziki kalteberenei, dieta orekatu bat izateko aukera emango diena.

Bere aldetik, LOMLOEk aldatu egin du LOEren 124. artikulua, xedatzeko autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailak arduratuko direla erregulatzeaz ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak bete behar dituen baldintzak eta betebeharrak; koordinatzaile hori ikastetxe guztietan izendatu behar da, beren titulartasuna alde batera (124. artikulua, LOE 2/2006/, maiatzaren 3koa).



2.2. Eginkizunak antolatzeko proposamena

Ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak bere gain dituen eginkizunen garapenak **haurren aurkako berdinen arteko indarkeriaren prebentzioa eta helduengandik erabilitakoarena** hartu behar ditu barnean, sexu-indarkeriari buruzko ekintza espezifikoekin. Bere eginkizunak taldekatzeak ikuspegi bat eskaintzen du bere jardute-prozesuaren zikloaren inguruan, lagungarria izan daitekeena bere errazago komunikatzeko eta bere garapen profesionala irmotzeko. Estatuko legerian jasotakoetatik eginkizunak honela antolatzea proposatzen da, bost jardute-eremu hauen inguruan*:

Plangintza

h) Ikastetxeko zuzendaritzarekin LOPIVren 31. artikuluan adierazitako bizikidetzaren plana koordinatzea.

+) **Ikastetxeko arriskuen prebentzio goiztiarrean eta babes-politiken (safeguarding) lanketan elkarlanean aritzea.**

k) Ikastetxean ematen den elikadura osasungarria eta elikagarria izan dadin sustatzea, haurrei eta nerabeei, bereziki kalteberenei, dieta orekatu bat izateko aukera emango diena.

Prebentzioa

d) Neurriak sustatzea, haur eta nerabeentzako ahalik eta ongizate handiena ziurtatuko dutenak, baita haienganako tratatu onaren kultura ere.

e) Ikastetxeko langileen eta ikasleen artean gatazkak modu baketsu batean ebazteko metodo alternatiboak erabil daitezela sustatzea.

f) Desgaitasuna duten edo beste edozein kalteberatasun- edo dibertsitate-zirkunstantzia berezi bizi duten ikasleenganako errespetua sustatzea.

+) **Haurren parte-hartzea eta gurasotasun positiboa sustatzea.**

Prestakuntza

a) Prestakuntza-planak sustatzea prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta haurren eta nerabeen babesari buruz, bai ikastetxeetan lan egiten duten langileei bai ikasleei zuzenduak. Tutore-lana egiten duten ikastetxeetako langileei zuzendutako prestakuntza-planari emango zaie lehentasuna, baita ikasleei zuzendutakoei ere, indarkeria-egoerak

detektatu eta horien aurrean erantzuteko trebetasunak eskura ditzaten. Gainera, Gurasoen Elkarrekin koordinazioan, haien artean prestakuntza hori sustatu beharko da, baita tutore-, zaintzaile- edo hartzaile-eginkizunak betetzen dituzten horien artean ere.

f) Ikastetxeko langileei informatzea edozein indarkeria-motaren aurrean prebenitzeko eta babesteko dauden protokoloak buruz dagokion herrian edo autonomia erkidegoan.

Arrisku-egoeren detekzioa eta alerta goiztiarra

+) **Estrategiak bultzatzea haurren aurkako arrisku- edo indarkeria-egoera posibleak identifikatzeko eta interbentzio-neurriak har daitezela sustatzea ikastetxeek eta gizarte-zerbitzu eskudunek aurreikusitako protokoloen esparruan.**

i) Adingabeen segurtasunarentzat arrisku bat diren egoeretan ikastetxeak Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei zuzendutako berehalako komunikazioa sustatzea.

j) Adingabeen datu pertsonalen legez kontrako tratamendu bat berekin ekar dezaketen egoeretan, ikastetxeek Datuak Babesteko Agentziari zuzendutako berehalako komunikazioa sustatzea.

c) Erreferente gisa identifikatzea, ikasleen aurrean, ikastetxeko langileen aurrean eta, oro har, hezkuntza-komunitatearen aurrean, ikastetxeko edo inguruko indarkeria-kasu posibleei buruzko komunikazioetarako.

Hezkuntza-interbentzioa

b) Hezkuntza-administrazioek onesten dituzten protokoloekin bat etorrira, gizarte-zerbitzu eskudunen interbentzioa eskatzen duten kasuak koordinatzea. Legez aurreikusitako kasuak direnean, dagokien agintariei jakinarazi beharko zaizkie, beharrezkotzat jotzen bada, eta komunikatzeko betebeharrari kalterik egin gabe.

+) **Interbentzioetan konfidentzialtasun egokia bermatzea eta neurriak sustatzea eskola-komunitateko edozein kideren estigmatizazioa saihesteko.**

+) **Indarkeriaren biktima diren hurrek eta nerabeek hezkuntza-sisteman jarrai dezaten bermatzeko neurriak sustatzea, hezkuntza-eremutik haiei egoera traumatikoak gainditzeko eta susperraldi osoa lortzen lagunduz.**

*Kontuan izan letra etzana duten paragrafoak Estatuko legeriaren edukiaren hitzez hitzeko aipua direla eta proposatutako gehigarriak letra lodian agertzen direla.

2.3. Jardute-ardatzak

Ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen jarduna ikastetxearen Bizikidetza Planaren esparrua garatu behar da, eta Ikastetxearen Hezkuntza Planean jasota egon behar du. **Ikastetxea babes-faktore bihurtzeko helburua** ezartzen du Legeak eta, beraz, bere eginkizunak eskola-erakundearen barruan soilik gertatzen den horretara mugatu baino, **bere ikasleen bizitzan dauden arriskueta hedatu behar dira**. Horretarako, kontuan hartu behar ditu faktoreak, mehatxuak eta inpaktua, bai familia-eremuan bai komunitate-eremuan, ahaztu gabe eremu horien hedapen birtuala Harreman, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (HIKT) bitartez.

Kontuan hartu behar dugu abusu- edo indarkeria-egoeraren bat jasaten duten edo jasan duten ikasleek ikastetxera joaten jarraitzen dutela; beraz, **babes-lana**, halako egoerak **detektatzetik harantz**, halako egoeratan **ondoren edo aldi berean laguntzera zabaltzen da**.

Xede hori modu integral batean garatzeko **aktiboki aritu behar du elkarlanean haurren babesaz arduratzen diren gainerako erakundeekin**. Argi geratu behar du bere koordinazio-rolak ez duela asmoz antolamendu-ekintza bat aurrera eramatea beste erakunde batzuetako gainerako eragileen gainean. **Bere zeregina koordinazioa ikastetxean bermatzean datza, gainerako eremuekin koordinazio eraginkor bat ezartzea lortzeko**, haietako bakoitzari esleitutako eskuduntza-esparruak errespetatuta. Ez ditu gainerako eremuak koordinatzen, haiekin batera koordinatu baizik.

Bermatu egin behar du ikastetxean **detektatutako indarkeria-egoera oro jakinarazten dela**. Jakinaraztea erakunde egokiei haurrenganako arrisku-kasuen edo tratatu txarrari lotutakoen berri ematea da, haurrari edo nerabeari behar duen berehalako arreta emateari kalterik egin

gabe. Betekizun hori beharrezkoa da interbentzioa ahalbidetzeko, baita hezitzaileen betebeharrak legal eta profesional bat ere (Arruabarrena, 2006). Tratu txarraren seinaleak komunikatzeko ez du esan nahi tratatu txarra frogatu egin behar denik. Ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen erantzukizuna ez da informazioa biltzea edo gertakariak argitzeko ikertzea; haurrei laguntzeko informazio-katearen maila bat da bere jarduna. Detekzioak ahalik eta goiztiarrena izan behar du, eta tratatu txarra existitzen den egoerak hartu behar ditu barnean, baita tratatu txarra sor daitekeen arrisku-egoerak ere (MSSI, 2014).

Kontuan hartuta bere xede nagusia haurren babesa bermatzea dela, edozein indarkeria-motaren — fisikoa, emozionala edo sexuala — edo zabarkeriazko traturen aurrean, **haurren babesari buruzko kontzientzia eta erantzukizuna sustatu beharko ditu hezkuntza-komunitateko helduengan**, haurren parte-hartzea indartu beharko du babesaren arloan, eta arazo horren gaineko ekintzen kalitatea eta koordinazioa ziurtatu. **Funtsezkoa da indarkeriaren aurrean haurrak babesteko kultura proaktibo bat sortzea**.

Era berean, **funtsezkoa da eginkizun hori betetzen duen pertsona irisgarria izatea haurrentzat**, baita gainerako hezkuntza-komunitatearentzat ere, eta parte-hartzea eta indarkeriarik gabeko harreman-giroa bultzatu behar ditu, tratatu ona eta elkar zaintza sustatuko dituen.

Azkenik, aipatzekoa da ez dugula nahikotzat jo behar haurrak babesteko erantzukizun-neurri bakar gisa protokolo zehatzak biltzen dituen politika bat edukitzea erakundeetan; hori baino gehiago, ziurtatu egin behar dugu politika hori ezaguna dela eta aplikatzen ari dela, eta horretarako enfasia jarri behar da protokolo horien jarraipenean eta berrikuspenean.

Ikastetxe bat babes-faktore bihurtzeko hezkuntza-komunitateko helduen kontzientzia eta erantzukizuna bultzatu behar dira, indarkeriaren edozein adierazpide antzeman eta bere aurrean koordinatuta jardun ahal izateko.

Indarkeriaren eraginpean egoteak ondorio larriak ditu haurren eta nerabeen garapen pertsonalean, sozializazioan eta hezkuntza-prozesuan. Jardun kolektibotik bakarrik ezar daiteke bakearen eta bizikidetzaren kultura bat.

2.4. Erlazioa beste profil profesional batzuekin

Nahiz eta figura honek garrantzizko erreferente internazionalak izan, hezkuntza-sisteman sarritan ondo zehaztuta ageri ez den profil profesional bat da, neurri batean berria delako eta araugintzan dagokion garapena oraindik osatzear dagoelako. Sarritan, bere eginkizuna elkarlan estuan aritu behar duen beste profil batzuei dagozkien eginkizunekin nahasten da.

ZUZENDARITZA-TALDEAREKIN

Hezkuntza-erakundeetan haurrak babesteko duten azken erantzukizuna ikastetxearen zuzendaritzari dagokio; ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak zuzendaritzaren ordezkari gisa jarduten du. Funtsezko euskarria da zuzendaritzaren eginkizunarentzat, haurren babesak jarraitasuna eta antolamendu sistematikoa izan ditzan. Prebentzio-jardunak etengabeko jarraipena eskatzen du (intzidenteei berehalako arreta behar izaten dute eta kasuen jarraipen-prozesuak luzatu egiten dira denboran). Hala, horrek zaildu egiten du zeregin hori zuzenean zuzendaritza-taldeak bere gain hartzea, eta horregatik behar izaten da dedikazio profesional espezifiko bat, jardueren ordezkariaren eraginkortasuna bermatuko duena beste profesional desberdinen aldetik. Zuzendaritza-taldearen eta koordinatzailearen artean elkarlan estua eratu ohi da, konfiantzan oinarritua, eta horretarako koordinatzaileak kontu eman behar du etengabe, eta bere jardunean zuzendaritza-taldearen babes irmoa jaso.

TUTOREEKIN

Tutoreen ekintza erantzukizun partekatu bat da. Haien jarduerak batez ere ikasleengan, haien familiengan eta ikasgelako taldean daude oinarrituta. Bai intzidenteei bai indarkeriaren

prebentzio-estrategiek hedadura handiagoa izan ohi dute, ikastetxean zabaltzen direlako eta hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko dutelako. Kasu ugarietan, interbentzio-estrategia ezarri ondoren, hezkuntzan ikasleek eta haien familiek jasotako laguntza tutorearen esku geratzen da. Ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen lana funtsezkoa da tutoreen ekintzan prebentzio-interbentzioen batasuna, koherentzia eta inpaktua lortzeko.

HEZKUNTZA-ORIENTAZIOKO TALDEAREKIN

Orientazioaren arloko profesionalen eginkizuna irakaskuntzaren indibidualizaziora bideratutako hezkuntza-erantzun egokia, dibertsitatearekiko erantzuna eta orientazio akademiko eta profesionala **ematean oinarritzen da**. Sarritan bat etorriko dira bizikidetzaren planaren aplikazioan. Nabarmentzekoa da haien lankidetzak garrantzi berezia duela indarkeriaren biktimek izaten duten hezkuntza-disrupzioa saihesteko.

HEZKUNTZA-IKUSKARITZAREKIN

Komeni da ikuskaritzarekin lotura estu bat ezartzea, horrek egitura irmo bat ahalbidetuko baitu **hezkuntza-arloko administrazioari kontu emateko**, kontuan hartuta bere lanaren babes-iturri garrantzitsua dela erakundearen aldetik.

BIDEOA: <https://www.youtube.com/watch?v=Mphy4dXJjVg>

Haurrentzako babes-inguruneak sortzen

Goian erakusten den estekak sarbidea ematen du UNICEF Espainiak egindako bideo batera. Bertan, gaian aditu diren hainbat profesionalen ikuspegia jasotzen da, ikastetxeetako ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen figuraren ezagutzan sakontzeko helburuz.

2.5. Barne-sarea eta kanpo-sarea

Ongizatearen eta babesaren koordinatzailea ikastetxean babes-ingurune bat ahalbidetuko duen lankidetzaren sarea eraikitzeaz arduratzen den pertsona da. Honela dago osatua: barne-sare bat, hezkuntza-komunitate osoa inplikatzen duena, eta kanpo-sare bat, haurrak babesteaz arduratzen diren gainerako eremuekin koordinatzen dena (2. irudia).

Segurtasunaren eremuan funtsezkoa da lankidetzaren sustatzea prebentzioan espezializatutako unitateekin, besteak beste, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteekin, haiek arduratzen baitira **Ikastetxeetan eta beren Inguruneetan Bizikidetzaren eta Segurtasuna Hobetzeko Plan Zuzentzailea burutzeaz**, baita tokiko poliziako **Agente Tutoreekin** eta beren programa autonomikoekin ere.

Gizarte-zerbitzu eskudunekin ezinbestekoa da harreman etengabe bat ezartzea, bai lehen mailako arretan bai espezializatuan. Bestetik, bereziki garrantzitsua da koordinazioa izatea administrazio publikoen tutoretzapean dauden haurren eta nerabeen hezkuntza-jarraipenean.

Osasunaren eremuan funtsezkoa da eskolarizaintzako zerbitzuen inplikazioa. Figura hori existitzen ez den ikastetxeetan ezinbestekoa da osasun-zerbitzu desberdinek eskainitako prebentzio-programen garapena erraztea eta, behar


direnean, osasun-asistentziako protokoloek egokiro funtzionatzen dutela bermatzea.

Eremu judizialean interes berezia du biktimei arretera emateko bulegoarekin lankidetzaren mekanismoak ezartzea.



©UNICEFUN0364110/Tamara Merino

2. irudia. Ikastetxean haurren babes-ingurunea eraikitzen duten funtsezko eragilearen sarea



2.6. Informazio sentikorraren trukea

Haurren aurkako indarkeria-kasu larrien berrikuspenek informazioa eremu desberdinen artean partekatzearen garrantzia azpimarratzen dute. **Eremu asistentzial desberdinetan jasotako informazioa erregistratzeko eta esanahia emateko aukera galtzeak ondorio larriak ekar ditzake haurren eta nerabeen segurtasunerako eta ongizaterako** (HM Government, 2018).

Ikastetxez, egoitzaz edo laguntza-zerbitzuz aldatzeak itsu utz ditzake haurren babesa zaintzen diharduten eremu desberdinetako profesionalak. **Halako egoerak erronka bat dira administrazioen arteko koordinazioarako. Erronka horri bermearekin aurre egiteko informazio-sistema partekatutak behar dira.**

Kasuak bereizten dituzten aplikazioak eta zerbitzu eskudunei zuzendutako berehalako jakinarazpena oso tresna erabilgarria dira ikastetxeetan datu sentikorraren erregistroak ugai ez daitezen lortzeko eta administrazioen arteko berehalako komunikazioa sustatzeko.

Informazio-trukeak proportzionala izan behar du premiarekiko eta arrisku-mailarekiko, eta beste eragile batzuek beren lana eraginkortasunez egitera eta haiek erabaki informatuak hartu ahal izatera bideratua egongo da. Informazio-fluxu hori ondoko printzipioek gidatu behar dute:

Egokia. Jardunaren xederako garrantzizkoa den informazioa ezagutu behar duten pertsonekin bakarrik partekatuko da.

Zehatza. Informazioak argia eta laburra izan behar du. Adierazi egin behar da datuak iraganeko edo oraingo gertakariei buruzkoak diren. Argi eta garbi bereizi behar da gertaeren eta iritziaren artean.

Aproposa. Informazioa komeni den denboran eta moduan partekatu behar da hurrei laguntza eta babesa emateko aukerak galtzeko arriskua murriztearren. Informazioa bizkor partekatzea funtsezkoa izango da larrialdi-egoeretan. Beti ere, profesionalak informazioa arretaz partekatzen dela bermatu behar dute.

Segurua. Ahalegin guztiak egin behar dira informazioa modu egoki eta seguru batean partekatzeko. Beti bete behar da indarrean dagoen araudia informazio pertsonalaren eta datu-babesaren arloetan.

Erregistratua. Informazioa trukatzeko erabakiak erregistratu egin behar dira. Informazioa trukatzeko erabakitzen bada, arrazoiak aipatu behar dira, informazio partekatua dela eta norekin partekatzen den ere adierazita, erakundearen prozeduren arabera. Informazioa ez partekatzea erabakitzen bada, jardun egokia da erabaki horren arrazoiak erregistratzea eta haiek eskatzailearekin eztabaidatzea. Informazioak ezin du gordeta egon behar den denbora baino gehiago. Berrikuspen-prozesu bat egon behar du, denbora-tarte erregularretan programatua, datuak jada behar ez direnean gordetzen ez direla ziurtatzeko.



3. INTERBENTZIO-MAILAK

Ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen eginkizuna ikastetxean babes-ingurune bat eraikitzea da, ikaskuntza eta ongizate fisikoa eta psikologikoa erraztuko dituen eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoera guztiak prebenitu eta haietan esku hartuko duena. Helburuen lorpenean jardungo du eta teknika desberdinak aplikatuko ditu prebentzioaren arloan bere jarduna kokatzen den mailetan:

Prebentzio primarioa. Arrisku-faktoreak saihestean, tratu onean heztean eta pertsonen arteko harreman osasungarrietan oinarritua.

Prebentzio sekundarioa. Gatazken egoera goiztiarrak identifikatzera eta kudeatzera, eta haiek bortizki areagotzea saihestera zuzendua.

Prebentzio tertziarioa. Indarkeriaren biktimek jasaten dituzten ondorioak larriagotzea saihestera bideratua, hezkuntza-eremutik egoera traumatikoa



gainditzin eta susperraldi osoa lortzen lagunduz. Birbiktimizazioa, estigmatizazioa edo hezkuntza-disrupzioa saihestea dira maila honetako interbentzioen ohiko helburuetako batzuk.


Beren lana ezin da soilik kontzeptualizatu indarkeria-kasuak kudeatzeaz eta biktimari arreta emateaz arduratzen den figura gisa. Lan proaktibo bat egiten dute eta prebentzio primarioan ematen dute beren jardunaren denbora gehiena (3. irudia).

Jardunaren piramide hau alderantzikatua dagoenean, prebentzio primarioan baino denbora gehiago emanez prebentzio tertziarioan, jardun

erreaktibo bat eramaten da aurrera eta, beraz, berriro ebaluatu beharko da haurrak babesteko aplikatzen ari den estrategiaren eraginkortasuna. Piramide alderantzikatu batek modu esanguratsu batean handitzen du gastua eta areagotu egiten ditu biktimak bizitako kaltea eta bere ondorioak, bereziki kalteberenak diren pertsonengan.

Hobeto uler dadin beren jarduna, ondoren kasu tipoen zerrenda bat aurkezten da, haiek tartean sartzen dituzten egoera errealetan oinarrituak. Adibide hauen asmoa ez da antzeko kasuetan esku hartzeko modurik onena aurkeztea, eremu honetako interbentzio batzuk erakustea baizik.

3. irudia. Jardun-denboren eredu ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen prebentzio-mailaren arabera, Espainiako British Council erakundeko haurren babesaren arloko arduradunen jardun-denboretan oinarritua.



3.1. Kasu tipoak

Jarraian zortzi kasu tipo edo adibide aurkezten dira. Hezkuntza-komunitatean gertatzen diren edo gerta daitezkeen egoera desberdinak jasotzen dituzte, ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen jarduna eskatzen dutenak.

1. kasua. *Grooming*aren prebentzio primarioa eta detekzio goiztiarra

Lehen Hezkuntzako azkeneko mailako ikasle-talde batek teknologien erabilera egokiari buruzko prestakuntza jasotzen du ikastetxeak urtero antolatutako prebentzio-ekintzen barruan. Beren kezkak konfiantzazko pertsona heldu batekin partekatzearen garrantzia aditzera ematen zaie.

Juanek ez du jardueran oso modu aktiboan parte hartzen, baina klasearen ondoren irakasleengana hurbiltzen da. Berak esaten dio "sekreto txar" bat duela, eta bere ustez kontatu egin behar

duela. Familiako lagun batek gozokiak, jostailuak eta kromoak oparitzen dizkio, baina Juan ez da harekin eroso sentitzen, ezta azkenaldi honetan WhatsAppez bidaltzen dizkion mezuekin ere.

Irakasleak ikastetxeko ongizatearen eta babesaren koordinatzailearengana jo du, eta hura kontaktuan jarri da Polizia Nazionaleko herritarren partaidetzako ordezkariarekin. Poliziak ikertzeari ekin eta berretsi egiten du *grooming* (online sexu-jazarpena eta -abusua) saialdi baten xede izaten ari dela Juan.

2. kasua. Eskolan moldatu ezina indarkeria ezkutuaren seinale gisa

Eskola-orientatzailearen laguntza eskatzen da ikasgelan portaera-arazo nabarmenak izaten ari den 12 urteko mutil batentzat. Jolastokian agresibo ikusten zaio, kosta egiten zaio lagunak egitea eta urria da bere eskola-errendimendua. Orientatzailea aholku bila doa ongizatearen eta babesaren koordinatzailearengana, kasu honetan familia barruan indarkeria egon daitekeelako eta arazoari heldu nahi diolako. Galdera-sorta bat adosten dute elkarrekin batera, orientatzaileak haurrari egingo dizkionak haren egoera hobeto ezagutzeko. Elkarriketan konfiantzazko giroa

sortzen da orientatzailearekin, eta mutila negarrez hasten da. Bere aitak ama etengabe jo eta umiliatzen duela azaltzen du. Behin baino gehiagotan ospitalera joan behar izan zuen amak. Mutila indarkeriaren biktima da ama babesten saiatzen denean, eta frustrazio handia sentitzen du babestu ezin duelako. Aitak haurrari esan dio zerbait kontatzen badu hil egingo duela ama. Ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak berehala deitzen du 016ra eta Polizia Nazionaleko Familien eta Emakumeen Arretarako Unitatea (UFAM) arduratzen da kasuaz.

3. kasua. Nahita eta nahi gabe egindako kaltea saihestea eta konpontzea

15 urteko neska ikasle baten eskola-errendimendua nabarmen jaitsi da. Nahiko pisu galdu du eta oso isilik ikusten zaio. Bere neska-lagunek ongizatearen eta babesaren koordinatzailearengana jo dute eta harekin partekatu dute argazki batzuk hedatzen ari direla, non barruko arroparekin agertzen den neska. Neskaren mutil-lagunak —15 urtekoa eta ikastetxe bereko ikaslea bera ere— bere lagunei erakutsi zizkien argazkiak. Horren ondorioz, neska umilazioa sufritzen ari da beste ikasle batzuen aldetik. Argazkiak hedatu zituen ikasleak dio ez zela jabetzen horrek sorraz zezakeen kalteaz ezta inpaktuaz ere, eta bere mutil-lagunak txunditzeko

asmoz egin zuela. Ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak, familiekin lankidetzan, hezkuntza-jarduera batzuk jartzen ditu praktikan portaera kaltegarria zuzentzeko, biktimaren erreparazioa barne. Familiek beren kabuz adosten dute legezko neurriak ez hartzea.

Taldearekin lan egiten da ikastetxean bi ikasleen estigmatizazioa saihesteko. Gainera, ikastetxeko ikasle guztientzat prebentzio-jarduera batzuk programatzen dira genero-berdintasunari eta eremu birtualeko intimitateari eta pribatutasunari buruz.

4. kasua. Jarraipena eta jardun koordinatua

Lau urteko haur bat izututa joan da ikastetxera. Azaldu du bere anaiak ezin izan duela ikastetxera joan aurreko egunean aitak emandako kolpeengatik. Hurrengo egunean ez zaio tratatu txarraren ageriko seinalerik ikusten eta irakasleak galdetzen duenean dena ondo dagoen, mutilak baietz erantzuten du.

Irakasleak ikastetxeko ongizatearen eta babesaren koordinatzailearengana jo du. Egoera horrek bazituen aurrekariak lehendik. Anaia zaharrenak duela bi urte esan zuen aitak

zigor fisikoa erabiltzen zuela etengabe. Kasua Gizarte Zerbitzuetara deribatu zen eta harrezkero ikastetxea beti egon da bileretan udalerriko nerabeen eta familien lan-taldeekin (ETMF).

Ekintzak indartu egiten dira Gizarte Zerbitzuen gidaritzapean eta jarduteko jarraibideak jasotzen ditu ikastetxeak. Erakundeen arteko komunikazioa etengabea da eta bermatu egiten du indarkeria-egoera berrien aurrean berehala jardungo dela.

5. kasua. Irakasleenganako zurrumurru maltzurak

Haur hezkuntzako 3 urtekoen ikasgelak txango bat egiten du baserri-eskola batera. Bi irakasle doaz hurrekin: Víctor eta Juana. Juanak argazki batzuk ateratzen ditu eta ikastetxearen webgunean argitaratzen dira. Haietan, Víctor eta haurrak baserriko abereekin batera agertzen dira. Gela horrek gurasoen WhatsApp talde bat du. Gurasoetako batek Víctor haurrak ondo zaintzen ari ez denaren zurrumurrua piztu du. Bere mugikorrari begira ari dela dio (argazkietako batean) eta beste argazki batean bere alabari ez diola jantzi berokia, eta gainera beste haur batzuei ez diela garbitu aurpegia bazkaldu ondoren.

Guraso-taldeak kexa formal bat aurkezten du ikastetxeko zuzendariaren aurrean. Ikastetxeko zuzendariak ongizatearen eta babesaren koordinatzailearengana jo du, alegazio maltzur bat delako susmoa hartuta. Gurasoak gatazka bat izan zuen irakasle horrekin, Víctorrek atentzioa eman ziolako bere alaba ordutegiz kanpo jasotzen zuelako. Ongizatearen eta babesaren koordinatzailea guraso-taldearekin gatazka argitzeko egiten den bilera baten buru da. Gainera, beste bilera indibidual bat egiten da ikastetxeko zuzendariarekin eta kexa formala aurkeztu zuen gurasoarekin batera.

6. kasua. Eskola-jazarpena eta haurren parte-hartzea

Ahmid ikasle ona da. Duela gutxi eskolatu da ikastetxean, errefuxiatu-zentro batetik etorriak diren beste hamar haurrekin batera. Hizkuntza ez du oraindik menderatzen, baina ahalegin handiak egiten ari da.

Ikasle nagusiagoen talde bat bere zain dago ikastetxeko irteeran, bera iraintzeko eta burla egiteko asmoz. Irakasleen ezkutuan egiten dute hori, baina Ahmiden gelako beste ikaskide batzuek

ikus ditzakete. Ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak sentsibilizazioa sustatzeko eta haurren parte-hartzea bultzatzeko ekintza batzuk eramaten ditu aurrera, eta ikasle-talde bat sortzen da ikastetxean ikasle berrien inklusioa errazteko. Ikasle horietatik bik ongizatearen eta babesaren koordinatzailearengana jotzen dute gertatzen ari dena hari kontatzeko, eta berehalako interbentzioari ematen diote bide jazarpena saihesteko.

7. kasua. Dibortzio gatazkatsua

Mariaren gurasoak dibortziatu egin dira. Ez dute horren berri eman ikastetxean. Bi gurasoek neskaren legezko zaintza nahi dute, eta amak eragotzi egiten dio aitari bisita-araubidea betetzea.

Ikasgelan, tutoreak antzeman du Mariaren eskola-errendimendua jaitsi egin dela; gainera gaitzespena jasotzen ari da neskarengandik. Bere jarrera menderakaitza eta esan txarrekoa da, eta hitzez adierazten du hau: "berari gizon bakar batek ere ez dio esango zer egin behar duen edo zer egin behar ez duen." Portaera disruptiboak areagotzen doaz, eta zalantzan jartzen da irakaslearen agintea ikasgelaren barruan. Amak presioa eragiten dio tutoreari

dokumentu batzuk sina ditzan aitaren kontrako kausaren alde.

Tutoreak ongizatearen eta babesaren koordinatzailearengana jotzen du laguntza bila.

Ikastetxea ez da familia-egoera baloratzen hasten, dagoeneko judizializatua baitago. Babes-plan bat diseinatzen du haurrak egoera hobeto maneia dezan eta irakaslearengan eta gainerako ikaskideengan inpaktua gutxitzeko. Koordinatzaileak aholkularitza eskaintzen dio irakasleari bere zereginari buruz egoera horretan, eta adierazten dio ez duela inolako txostenik eman behar, baldin eta epaitegiak eskatzen ez badu.

8. kasua. Herritarren lankidetzak bultzatzen duen lankidetzak instituzionala

Zentroan bandak daudela dioten zurrumurruek berri du ikastetxeak. Banda horiek inimiztatu-errituak dituzte, eta, horien artean, ausaz ikasle bat aukeratu behar da ikastetxearen sarreran, hari eraso egiteko. Ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak, agente tutorearekin lankidetzan, lan-talde baterako deialdia egiten du, eskola-kontseiluko, gurasoen elkarterako (IGE),

ikastetxeko zuzendaritzako, ikasketa-burutzako eta bigarren hezkuntzako ikasleekin. Elkarrekin lan egiten dute hezkuntza-komunitatean zurrumuru maltzurak zabaltzea saihesteko, gazteak errekrutatzea saihesteko, erasoak salaketak bultzatzeko eta komunitatean bandak ugaritzea prebenitzeko.

3.2. Bizikidetza-planaren mugak zabaltzen

Ikastetxeek ekintza ugari burutzen dituzte hainbat profesionalen aldetik (zuzendaritza-taldea, orientazio-saila, tutoreak, irakasleak, gurasoen elkarteak) haurrak babestuak izateko eskubidea bermatzeko helburuz.

Beharrezkoa da bizikidetza-planak legeak jasotako alderdi guztiak biltzen dituela ziurtatzea:

sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, biktimen babesa eta kaltearen erreparazioa.

Eszenario horretan, ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen figura funtsezkoa da ondoko hauetarako:

- Ekintzak eta interbentzioak sistematikoki eta haurrak babesteko estandar internazionalen esparruan egiten direla ziurtatzea.
- Arrisku-egoera kasuan hezkuntza-komunitateari

zuzendutako komunikazioa eraginkortasunez kudeatzea, informazioaren konfidentziasuna eta tratamendu egokia ziurtatuta.

- Barne-gatazkak gainditzea eta haurren interes gorena bermatzea.
- Jardute-esparru sistematiko eta jarraitu bat ezartzea, prebentzio-ekintzak garatzeko aukera emango duena, baita intzidente errealei edo ustezkoei erantzungo dieten jarduerak hezkuntza-komunitatean izan dezaketen inpaktua kudeatzeko ere.
- Ongizatearen kultura bat indartzea, ikastetxearen zeharkako ardatz eta identitate-ikur bilakatuta.
- Ongizatearen eta babesaren arloan entzutea hobetzea eta haurrek eta nerabeek adierazitako premiei erantzuten dieten jarduerak bideratzea.
- Prebentzio-ekintzen inpaktua eta eraginkortasuna areagotzea eta neurtzea.

Beharrezkoa da bizikidetza-planak legeak jasotako alderdi guztiak biltzen dituela ziurtatzea: sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, biktimen babesa eta kaltearen erreparazioa.



4. FUNTSEZKO FAKTOREAK IZENDAPENERAKO: ARRISKU-MAILAK

Estatuko legeriak ezartzen duenez, ikastetxe guztiek eduki behar dute ongizatearen eta babesaren koordinatzaile bat, bere tamaina, ezaugarriak edo titulartasuna alde batera. Hala, ikastetxe guztietan egon behar du behar bezala gaitutako pertsona bat eginkizun hori bete dezan, kudeaketaren arloan erronka garrantzitsu bat dela kontuan hartuta.

Baliabideen hornidurak ikastetxeetako arrisku-maila desberdinak hartu behar ditu kontuan. Horretarako, sare bat ezarri behar da, espezializazio- eta jardun-maila desberdinak bilduko dituenak. Hori funtsezkoa da baliabideak optimizatzeko eta jardura zailenak eskatzen dituzten testuinguruak egokiro hornitu ahal izateko.

Profesionalak izendatzean faktore jakin batzuk kontuan hartu behar dira, automatikoki arrisku bat berekin ez badakarte ere, potentzialki areagotu egin dezaketelako intzidente bat gertatzen denean. Besteren artean, hauek kontuan har daitezke:

- Ikastetxean eskolatutako haurren kopurua (zenbat eta ikasle gehiago, orduan eta arrisku handiagoa).
- Haur Hezkuntzan eskolatutako haurren kopurua (zenbat eta ikasle gehiago, orduan eta arrisku handiagoa).
- Ikastetxean lan egiten duten profesionalen kopurua (irakasleak eta irakasle ez direnak barne, baita puntualki ikastetxearekin elkarlanean aritzen diren hirugarrenak).
- Guraso bakarreko familietan bizi diren ikasleen kopurua.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kopurua.
- Eskola-bazkariak doan hartzen dituzten haurren kopurua.
- Europar Batasunetik kanpo jaioak diren haurren kopurua.
- Europar Batasuneko beste herrialde batean jaioak diren haurren kopurua.

- Europar Batasunetik kanpo jaioak diren gurasoen kopurua.
- Europar Batasuneko beste herrialde batean jaioak diren gurasoen kopurua.
- Urtero DBHko 4. maila gainditzea lortzen ez duten ikasleen kopurua.
- Ikasturtea errepikatzen duten haurren kopurua.
- Babes-sistematik arreta jasotzen duten haurren kopurua, arrisku-modalitatean nahiz babesgabetasun-modalitatean.
- Eskola-absentismoaren indizea.
- Ikastetxearen Heziketa Proiektuan adierazitako gizarte- eta hezkuntza-testuingurua.

Faktore horiek aztertu egin beharko lirateke arrisku-maila desberdinak ezartzeko, ikastetxean dauden giza baliabide espezializatuak optimizatzeko helburuz.

Koordinatzailearen jardunak testuinguruarekin duen lotura sendoa ikusita komeni da, hura hautatzean, kontuan hartzea **ikastetxeko talde profesionaleko kide izatearen garrantzia eta gutxienez bi urtekoa izatea bere antzintasuna ikastetxean. Gutxienez, bere dedikazioa ikasleko 0,023 ordu astean izatea gomendatzen da bere eginkizuna betetzeko (British Council-ek ikastetxe desberdinetan izandako esperientzian oinarritutako datuak).**

Ikastetxeetan jada existitzen diren profil profesional desberdinek, besteak beste, komunitatearekiko zerbitzueta irakasle teknikariek, gizarte-hezitzaileek eta orientazio-taldeei lotutako beste batzuek, aukera hobezina eskaini dezakete hezkuntza-sistemaren barruan baliabide espezializatuak mobilizatzeko. **Ongizatearen eta babesaren koordinatzailea izendatzeko diziplina anitzak biltzen dituen hurbilketa bat egin behar da, hurrekiko gizarte-interbentzioan izandako esperientzian oinarritua.**

©UNICEF/UNI173330/Giacomo Pirozzi



Bestalde, beharrezkoa da eginkizun hori aurrera eramateko behar diren baliabide ekonomikoak ezartzea. **Garapen on baterako bere ordainsari espezifikoak kontuan hartu behar da.** Gainera, kontuan hartu beharra dago **bere prestakuntza-eta gaikuntza-plana baliabide egokiez** hornitzeko premia, eta garrantzizkoa da ere eginkizun hori beren gain hartzen duten pertsonak nolabaiteko jarraitasuna izatea ikastetxearen barruan.

Figura horrek ikastetxeko zuzendaritza ordezkatuz jardun behar du eta ezin du eraginkortasunez bere eginkizuna bete erakundearen babes egokirik gabe, bai ikastetxearen aldetik, bai hezkuntza-kontseilaritzei dagozkien zerbitzuetatik. Horregatik, proposamena hau da, **haren izendapena hezkuntza-sailak egitea, ikastetxeak proposatuta, alde aurretik ikastetxeko eskola-kontseiluari kontsulta eginda.**

Eraginkorrak ez diren ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak izendatzea arrisku bat da erakundeentzat, haien izenean jardun behar

baitute, eta arriskuan jartzen du haurren eskubideen betearazpena. Hezkuntza-erakunde baten izen ona prestatua egotean eta egokiro jardutean oinarritzen da. Ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen konfiantza modu larriago batean erasan dezake bertako ikasleak bizitzen ari diren babesgabetasun-egoeren aurreko gelditasunak, egoera desegoki hori agerian uztean sor daitekeen gatazkak baino. **Ongizatearen eta babesaren arduraduna izateak momentu zailei aurre egitea adierazten du.** Haurren interes gorena zaintzea, askotan, barruko eta kanpoko presioak egokiro kudeatzea da. **Haiei aurre egiteko, funtsezkoak dira prestakuntza egokia, erakundearen babes eta hezkuntza-komunitatearen laguntza.**

Bere eraginkortasuna mantentzeko ezinbesteko elementua **administrazio eskudun desberdinetan babes-sare zabal eta irmotu bat edukitzea da.** Gainera, balio handiko aukera bat litzateke **agintari publiko figura** gisa hautatua izatea.

5. PRESTAKUNTZA, OINARRIZKOA, GAITZEKO ETA ESPEZIALIZATUA

Haurren babesa sustatzeko jarduerak koordinatzeko erronka garrantzitsuei aurre egin behar zaie eginkizun hori beteko duten profesionalen prestakuntzan. Eskola-eremuan arrisku- edo babesgabetasun-egoeren prebentzio- eta interbentzio-ekintzak garatzea bereziki zaila da eta ezagutza eta trebetasun espezializatuak behar dira horretarako. Horregatik, garrantzizkoa da prestakuntza-eredu eraginkor bat sortzea, premia horiei erantzungo diena eta ebidentzietan oinarritua egon daitekeena, kontuan hartuta horrek oso eragin nabarmena izan dezakeela hezkuntza-sisteman eta haurren ongizatean datozen urteetan.

Ondoren, prestakuntza-ibilbide bat eskaintzen da ikastetxean lan egiten duten profesional guztientzat. Ibilbideak hiru sakontze-maila jasotzen ditu, haurrak babesteko prozesuetan profesional horiek duten inplikazioaren arabera.

LEHEN MAILA: ongizatea eta babesa guztion lana da

Haurrak babesteko lanak ikastetxeko profesional guztiak konprometitzen ditu. Hortaz, oinarritzko prestakuntza bat proposatzen da, irakasle eta

administrazio eta zerbitzuetako langile guztiak sentsibilizatzera zuzendua (baita ikastetxean zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langile guztiak ere, haurrekin harremana dutenak) arrisku-egoerak detektatu ahal izan ditzaten.

BIGARREN MAILA: arrisku gutxiagoko mailetan ongizatearen eta babesaren koordinazio-lanerako gaitzeko prestakuntza

Ikastetxeetan prebentzioaren plangintza estrategiko bat egiteko eta babesaren gaineko intzidentziak kudeatzeko aldez aurreko esperientzia behar da haurrekiko gizarte-interbentzioan, baita graduondoko hastapenezko prestakuntza espezifiko bat ere, 30 eta 60 bitarteko ECTS kreditukoa.

HIRUGARREN MAILA: prestakuntza espezializatua arrisku handiagoko mailetan lan egiteko

Lan egitea zaila den testuinguruen gaineko interbentziorako eta hezkuntzako profesionalen sareari zuzendutako aholkularitzarako aldez aurreko esperientzia behar da haurrekiko gizarte-interbentzioan, baita graduondoko hastapenezko prestakuntza espezifiko bat ere, 60 eta 120 bitarteko ECTS kreditukoa.

Haurren babesaren arloko prestakuntzaren oinarritzko edukiak

- Haurrak eta nerabeak babesteko lege-araudia.
- Haurrak babesteko estandarrak erakundeetan.
- Administrazio desberdinetako jardute-protokoloak haurren aurkako indarkeriaren aurrean.
- Sare profesionalak eta baliabide eskudunak haurren eta nerabeen babesaren arloan.
- Indarkeriaren esparru kontzeptuala.
- Arrisku- eta babes-faktoreen identifikazioa.
- Haurren aurkako indarkeriaren prebentzio primarioaren hezkuntza-plangintza.
- Hezkuntza-eremuko interbentzio-prozedurak prebentzio sekundarioan eta tertziarioan haurrekin eta nerabeekin, familiarekin eta taldeekin.
- Informazio sentikorraren kontu emateko eta kudeatzeko prozedurak.
- Haurren ongizatearen eta babesaren arloko komunikazioa eta prestatzaileen prestakuntza.

6. HAURRAK BABESTEKO IRAKASLEEN GAITASUNEN EBALUAZIOA

Eginkizun horiek betetzeko irakasleek dituzten konpetentziak ebaluatzea funtsezkoa da haurrak osorik babesteko eredu bat ikastetxeetan eta ikastetxeetatik ezartzeko garaian. Ebaluazio horietatik eratorritako ezagutza estrategikoa izango da hezkuntza-administrazio desberdinek hartzen dituzten erabakiak oinarritzeko.

Bigarren hezkuntzan irakasle-lanbidean jarduteko gaitasunak: oraingo egoeraren analisia eta etorkizuneko prestakuntza-proposamenak I+G+B proiektuak (PID2019-106643GA-I00), Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatuak, aukera bikaina eskaintzen du ebidentzia zientifikoa lortzeko haurrak babesteko prozesuetan parte hartzeko irakasleek dituzten gaitasunei dagokienez, irakaslearen konpetentzia-profil orokor baten garapenaren esparruaren testuinguruan kokatuta.

Ikerlan horren emaitza gisa ondokoak aurreikusten dira:

- Hezkuntza-komunitatearen eskueran jartzea “irakasleen gaitasun profesionalei buruzko eredu teoriko” bat.
- Ebaluazio-tresna bat diseinatzea, ezaugarri psikometrikoki kontrastatuekin. Tresna hori aldi-aldi aplikatu ahal izango da, denboran zehar irakasleen gaitasun profesionalen jarraipen bat egiteko helburuz.
- Irakasleen prestakuntza-premia espezifikoak identifikatzea.
- Irakasleentzako prestakuntza-proposamen bat diseinatzea, beren irakaskuntza-jarduerak hobetzen lagunduko duena.
- Irakasleen hezkuntza-premiei egokiro erantzuteko bigarren hezkuntzako irakasleek eduki behar dituzten gaitasun profesionalei buruzko ezagutza teorikoa eta enpirikoa areagotzea.

Alde horretatik, hezkuntza-administrazioek ikastetxeen parte-hartzea bultzatu behar dute irakasleen prestakuntza-premiei buruzko

informazioa biltzeko aukera emango duten ikerlanetan, hezkuntza-sisteman LOPIVI legearen ezarpenarekin lotuta.

Eta garrantzizkoa da ere, unibertsitateekin eta hezkuntza-administrazioekin lankidetzan, prestakuntza-eskaintza baten ezarpena sustatzea, figura horren espezializazioa eta garapena profesionala ahalbidetuko dituen, dokumentu honetan proposatutako ereduarekin bat etorrira.

LOPIVI legeak 36. artikuluan ezarri egiten du hastapenezko prestakuntzaren garrantzia hezkuntza-eremuko ikasketa-planetan (unibertsitateko graduak eta graduondokoak eta goi-mailako heziketa-zikloak). Bertan ezartzen denez, sustatu egingo da eduki espezifikoak txertatzea, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuen prebentziora, detekzio goiztiarrera eta interbentziora zuzenduak, genero-ikuspegia kontuan hartuta.



GOMENDIOAK ONGIZATEAREN ETA BABESAREN KOORDINATZAILEAREN (OBK) FIGURA EZARTZEKO

Eginkizunen garapena

- Estatuko araudian ezarritako eginkizunak antolatzea etaosatzea araudiaren garapen autonomikoan zehar. (ikus 13. or.)
- *Keeping Children Safe* erakundearen estandar internazionaletan eta UNE 0070 espezifikazio teknikoetan oinarritzea bere eginkizunei buruzko araudia garatzeko. (ikus 10. or.)
- Araudi erregulatzailean neurriak ezartzea, hezkuntza-komunitatearen eta administrazio publikoaren aurrean figura horren kontu-ematea ziurtatuko dutenak. Figura horren eta hezkuntza-ikuskaritzaren arteko lotura estu bat sustatzea.
- OBK agintari publiko figura gisa aitortzea eta administrazio eskudun desberdinetan babes-sare zabal eta irmotu bat duela bermatzea.
- Jarduteko oinarrizko printzipio batzuk ezartzea bere jarduna ahalik eta onena izan dadin. Printzipio horiek ondoko arloen artean adostuko dira: gizarte-zerbitzuak, segurtasuna, osasuna eta hezkuntza. (ikus 17. or.)
- Informazio-sistema partekatu bat ezartzea gizarte-zerbitzuen eta hezkuntzaren artean, kasuak jakinarazteko eta haien jarraipena egiteko.



GOMENDIOAK

ONGIZATEAREN ETA BABESAREN

KOORDINATZAILEAREN (OBK) FIGURA EZARTZEKO

Izendapena

- Ikastetxeetako arrisku-maila desberdinak kontuan hartzea eta OBK sare bat ezartzea, espezializazio- eta jardun-maila desberdinak bilduko dituen. (ikus 24. or.)
- OBKak izendatzeko diziplina anitzak biltzen dituen hurbilketa bat gomendatzea da, hurrekiko gizarte-interbentzioan izandako esperientzian oinarritua.
- Izendapena hezkuntza-sailek egin dezaten ezartzea, ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta eta aldez aurretik eskola-kontseiluari kontsultatuta.
- OBKren jarduerak ordainsari espezifikoa izatea eta bere prestakuntza- eta gaikuntza-plana baliabide egokiez hornitzea.

Prestakuntza

- Prestakuntza-eredu bat ezartzea, hiru mailatan oinarritua: oinarrizkoa, gaitzekoa eta espezializatua. (ikus 26. or.)
- Ezinbestekoa da prestakuntza jarraitua izatea, etengabeko prestakuntza-eskaintzan txertatuta, eta bere jarduera hobetzera zuzendua.
- Sare-lana eta prestakuntza-trukeak sustatzea ikastetxe desberdinetan izendatutako profesionalen artean.
- Erakundeetan haurren babesari buruzko ezagutzen integrazioa sustatzea zuzendaritza-taldean prestakuntza-plan espezifikoetan.

Unibertsitateekin lankidetzan, hezkuntza-eremuko ikasketa planetan (unibertsitateko graduak eta graduondokoak eta goi-mailako heziketa-zikloak) eduki espezifikoak txerta daitezen sustatzea, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuen prebentziora, detekzio goiztiarrera eta interbentziora zuzenduak, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

- Ikastetxeek haurren babesari lotutako irakasleen gaitasunei buruzko ikerlanetan parte har dezaten sustatzea. (ikus 27. or.)

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Arruabarrena, I. (2006). *La protección infantil: el papel de la escuela*. Nafarroako Gobernua, Familia Zuzendaritza Nagusia.
- HM Government (2018). *Working Together to Safeguard Children A guide to inter-agency working to safeguard and promote the welfare of children*.
<https://www.gov.uk/government/publications/working-together-to-safeguard-children>.
- Keeping Children Safe (2020) *Los estándares internacionales de protección infantil organizacional*. Keeping Children Safe.
- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. (2020). *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 340, I sek., 2020ko abenduaren 30ekoa, 122868 - 122953.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2020/12/29/3/con>
- Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa. (2006). *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 106, I sek., 2006ko maiatzaren 4koa, 17158 - 17207.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2006/05/03/2/con>
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak osorik babesteari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 134, I sek., 2021eko ekainaren 5ekoa, 68657 - 68730.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2021/06/04/8/con>
- Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna Ministerioa (2014) *Protocolo básico de intervención contra el maltrato infantil en el ámbito familiar*. MSSI
- Nazio Batuak (1989). Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.
<https://www.unicef.es/publicacion/convencion-sobre-los-derechos-del-nino>.
- Lege-proiektu Organikoa, indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak osorik babesteari buruzkoa (2020). *Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala Kongresua. A saila, 22- 1 zk.*, 2020ko ekainaren 19koa.
https://www.congreso.es/public_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-22-1.PDF
- Ramos, R. (coord.) (2018). *Los costes de la violencia contra la infancia. Impacto económico y social*. EDUCO eta Universidad Pontificia Comillas.
- UNESCO (2016). Whole school approach.
<http://www.ibe.unesco.org/es/node/12099>

KONTAKTUA

Dokumentu honetako edozein alderdi zabaldu edo azaldu ahal izateko helburuz, jarraian bere lanketan partaide izan diren adituen kontaktua ematen da:

UNICEF Espainia

ALMUDENA OLAGUIBEL
Babes-arloko espezialista
aolaguibel@unicef.es

ÓSCAR BELMONTE
Hezkuntza-arloko espezialista
obelmonte@unicef.es

NACHO GUADIX
Hezkuntza eta Haurren Eskubide Digitalak arloko arduraduna
nguadix@unicef.es

British Council

SONJA UHLMANN
Safeguarder Lead
sonja.uhlmann@britishcouncil.es

Universidad Pontificia Comillas

CLARA MARTÍNEZ
Haurren Eskubideen Santander Katedraren zuzendaria
clara@icade.comillas.edu

Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED)

ESTHER LÓPEZ-MARTÍN
Ikertzaile nagusia
Competencias para el ejercicio de la profesión docente en educación secundaria (ref.PID2019-1006643GA-I00)
estherlopez@edu.uned.es



| haur bakoitzarentzat